

Deialdia, Leitzaldeko euskara teknikari lanpostua ordekatzeko oposizio-lehiaketaren bidez

2026/1 Lehendakariaren ebazpenen bidez, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearen Batzarrak, deialdia onartzea erabaki zuen hurrengo hauen arabera:

OINARRIAK

1.–Arau orokorrak.

1.1. Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearen Leitzaldeko zerbitzuko euskara teknikari lanpostuaren ordezkapena, oposizio-lehiaketaren bidez, betetzea da deialdi honen xedea.

1.2. Lanpostuak B mailako lansariak izanen ditu, uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lansarien Behin-behineko Erregelamenduan eta gainerako xedapen aplikagarrietan erabakitakoaren arabera. Goragoko titulazioa duen izangairen bat izendatzen bada, lanposturako eskatzen den titulazioari dagokiona izanen da ordainsaria.

1.3. Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokituko da, eta administrazio organo eskudunak noiznahi aldatu dezake.

1.4. Lanpostua Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearen zonalde batean aritzeko eskaintzen da: Leitzaldean.

2.–Betebeharrak.

2.1. Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearen egitarauaren prestaketa, jarraipena eta kontrola.

2.2. Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatean euskararen normalizaziorako eta sustapenerako jarduera planen prestaketa, kudeaketa, jarraipena eta kontrola.

2.3. Euskararen normalizaziorako plangintza sektorialen prestaketa.

2.4. Leitzaldeko euskararen normalizaziorako eta sustapenerako jarduera planen prestaketa, kudeaketa, jarraipena eta kontrola.

2.5. Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak euskararen alorrean hartutako erabaki guztiak betetzeko ardura, eta haien jarraipena eta kontrola.

2.6. Arestian aipatutako udal eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateari bere euskarazko jardunetan aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea.

2.7. Soziolinguistikaren alorrean, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko egitura ezberdinak aholkatzea.

2.8. Arestian aipatutako herri horietako Euskara Batzordeak, eskualdeko Euskara Batzordea, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko aholkularitza batzordea, batzorde erabakiorrak eta Batzar Orokorrak koordinatu eta horietan parte hartzea.

2.9. Beste Udalekin eta Foru Erakundeekin harremanetan jarri eta koordinatzea.

2.10. Euskararen sustapenerako ekintzetan parte har dezaketen herriko nahiz kanpoko elkarte eta taldeekin harremanetan jarri eta koordinatzea.

2.11. Euskara Zerbitzuaren azpiegitura (pertsonala, bitartekoak...) antolatu eta koordinatzea.

2.12. Kasuan kasuko batzorde erabakiorrak euskara alorrean eman diezaiokeen beste edozein eginkizun.

3.–Izangaiei betebeharrak.

3.1. Oposizioan onartuak izateko, izangaiek eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio, langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoa; espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuetakako herritarren ezkontideek parte hartu ahalko dute ere, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Hemezortzi urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.

c) Euskarazko hizkuntza gaitasuna egiaztatzen duen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailako titulua edo baliokideren bat izatea.

d) Unibertsitateko Diplomatu edo Graduatuko, Ingeniari Teknikoko, Arkitekto Teknikoko edo horien baliokidea den titulu bat edukitzea eskabideak aurkezteko mugaegunean, edo halakoak erdiesteko maneran egotea.

e) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisikoa eta psikikoa izatea.

f) Eginkizun publikoak betetzeko gabetua edo desgaitua ez izatea, eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik berezia ez izatea.

g) Ibilgailuak gidatzeko B mailako baimena izatea.

3.2. Aurreko baldintzak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko dira, eta oposizio- lehiaketaren prozeduran zehar, izendapena arte.

4.–Eskabideak.

4.1. Deialdian parte hartu ahal izateko eskabideak Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearen Erregistro Orokorrean (Basaburuko Udaleko egoitza elektronikoa) aurkeztu beharko dira, 10 hamar egun naturaleko epean.. Eskakerak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu.

Eskabidea posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian aurkeztuko da, postako langileek data eta zigilua jar ditzaten ziurtatu aurretik. Gainera, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateari jakinarazi beharko zaio posta elektronikoz (idazkaria@basaburua.eus); betiere, aurkezteko epearen egun eta orduen barrenean.

4.2.Eskabideak deialdian argitaratzen den ereduari lotuko zaizkio eta dokumentazio hau erantsiko zaie:

- a) Nortasun agiri nazionalaren edo pasaportearen fotokopia konpultsatua.
- b) Deialdi honen 3.1. atalean eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agirien fotokopia konpultsatuak.
- c) Lehiaketaldian baloratzen ahal diren merezimenduen fotokopia konpultsatuak.
- d) Hizkuntza maila egiaztatzeko eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua.

5.–Izangaien onarpena eta prozedura.

5.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, lehendakariak ebazpena emanen du izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta Iparraldeko Euskara Mankomunitateko web orrian argitaratzeko aginduko du.

5.2. Izangai baztertuek bost egun balioduneko epea izanen dute, behin-behineko zerrenda web orrian argitaratzen denetik, erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, haiek zuzentzeko.

5.3. Erreklamazioetarako epea iraganik eta horiek ebatzi ondoren, lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko ebazpena emanen du eta Iparraldeko Euskara Mankomunitateko web orrian argitaratzeko aginduko. Ebazpen horretan berean probak hasteko lekua, eguna eta ordua zehaztuko dira.

6.–Epaimahaia.

6.1. Epaimahaiak kide hauek izanen ditu:

–Lehendakaria: Aintzane Arraiza, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko Lehendakaria.

Ordezkoa: Goizuetako Udaleko ordezkaria.

–Mahaikidea: Leitzako Udaleko ordezkaria.

Ordezkoa: Aresoko Udaleko ordezkaria.

–Mahaikidea: Izaskun Errazkin Sakanako Mankomunitateko Euskara Teknikaria
Ordezkoa, Mario Zapata Berriobeitiko Udaleko Euskara Teknikaria.

–Mahaikidea: Edorta Cuesta Eguesibarreko Udaleko Euskara Teknikaria
Ordezkoa, Belen Ausejo Izagaldeako Euskara Teknikaria

–Idazkaria: Lucia Beloqui Iriarte, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko idazkaria. Hitza izango du, baina ez boto eskubidea.

–Ordezkoa: Ainhoa Beraza Elizondo, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko Euskara Teknikaria.

6.2. Mahaiburuak deituta, probak hasi baino lehenago eratuko da epaimahaia.

6.3. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta aritu ere, kideen gehiengo osoa bertan izan gabe.

6.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu dei honetako oinarrien interpretazio eta aplikazioaren inguruko arazo guztiak.

6.5. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari hori jakinarazi, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan horretarako aurreikusitako dauden arrazoiak suertatzen badira.

Izangaiek, halaber, zilegi dute epaimahaikideak errefusatzeko, aipatu egoera horiek gertatzen badira.

6.6. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan nahiz guztietan, epaimahaiak hala erabakiz gero. Aholkularitza horiek beren espezialitate teknikoetan aritzera mugatuko dira eta haietan soilik emanen diote laguntza epaimahaiari.

7.–Oposizioaldia nola egingen den.

7.1. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean, probak hasteko tokia, data eta ordua zehaztuko dira.

7.2. Oposizioako probek, gehienez ere, 80 puntuko balorazioa izanen dute. Bazterturik geldituko dira proba eta ariketa bakoitzean hari esleitutako puntuazioaren erdia eskuratzen ez dutenak.

7.3. Oposizioak bi proba izanen ditu: lehenbizikoan, lanposturako beharrezkoak diren oinarritzko eduki teorikoen ezagutza maila baloratuko da; bigarrenean, lanpostuko lan praktikoarekin ikusteko duen gaitasuna.

Proba bakoitzean ariketa hauek egingen dira:

a) Lehenbiziko proba: lanposturako beharrezkoak diren oinarritzko eduki teorikoen ezagutza maila frogatzeko. Gehienez ere 50 puntu. Gutxienez 25 puntu lortu behar dira.

Ariketa bakarra. Bigarren eranskinekogaitegiaren gaineko testa. Testa erantzuteko 60 minutuegonen dira, 50 galdera izanen ditu eta galdera bakoitzakerantzun zuzena aukeratzeko hiru aukera.

Erantzun zuzen bakoitzak 1,00 puntugehituko du eta erantzun oker bakoitzak 0,50 puntu kenduko du.

b) Bigarren proba. Lanpostuko jarduerari buruzko ezagutza praktikoak baloratuko dira. Gehienez ere 30 puntu.

Lehenengo ariketa: epaimahaiak euskararen sustapenarekin lotura duten bi egoera aurkeztuko ditu. Izangaiak bataukeratuko du, gehienez hiru orduz horri buruz egoki ikusten duen garapena idatziz egiteko. Gehienez ere 15 puntu. Gutxienez 7,5 puntu lortu behar dira.

Txostenean alderdi hauek garatu behar dira behintzat: euskararen egoeraren diagnostikoa, helburuak, lehentasunak finkatzeko irizpideak, eragileak eta bitartekoak, jarduera zehatzak eta ebaluatzeko tresnak.

Bigarren ariketa: izangaiak lehenengo ariketan garatutako proposamena ahoz azalduko dio epaimahaiari hogeituz (aurretik idatziz egindako ariketaren kopia digitala jasoko dute). Azalpena aurkezpen informatiko batek lagunduta egingen du, derrigorrez. Gehienez ere 15 puntu. Gutxienez 7,5 puntu lortu behar dira.

Azalpena bukatuta, epaimahaiak ariketariburuzko galderak egin ahalko ditu.

Epaimahaiaren aurrean ahozko azalpena egiten ez duten izangaiak baztertuta geldituko dira.

Eduki teorikoen ezagutza baloratzeko testa eta bigarren probari dagokion ariketa idatzia egun berean burutuko dira. Bi ariketa horietan zehaztutako gutxieneko puntuazioa lortu duten izangaiek, soilik, egingen dute kasu praktikoaren ahozko aurkezpena.

7.4. Oposizioako ariketa idatzietan pliken sistema erabiliko da.

7.5. Oposizioko proba guztiak euskaraz egingen dira.

7.6. Probetara ezin izanen da kontsultatzeko materialik eta sakelako telefonorik eraman.

7.7. Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingen da eta izangaiek Nortasun Agiri Nazionalea, AIZ edo pasaportearen aldean dutela agertu beharko dute. Baztertuak izanen dira probetarako iragarri egun, ordu eta tokietan aurkezten ez direnak eta nortasuna egiaztatzen ez dutenak, arrazoia edozein izanda.

8.–Proben balorazioa.

8.1. Epaimahaikideek kalifikazioa egingen dute, eta guztien batz besteko aritmetikoa izanen da dagokion ariketari emanen zaion puntuazioa. Epaimahaiko kideek emandako gehieneko puntuazioaren eta gutxienekoaren artean aldea baldin bada ariketarako aurreikusi den puntuazioaren %30etik gorakoa, ez da aintzat hartuko bi muturretako ezein puntuazio, eta banaz bertzeko aritmetikoa, gainerako puntuazioekin lortuko da.

8.2. Ariketa bakoitza ebaluatu ondoren, epaimahaiak ariketa gainditu duten izangaien zerrenda eta bakoitzak lortutako kalifikazioak argitaratuko ditu Mankomunitateko webgunean. Halaber, oposizioko hurrengo ariketa egiteko lekua, eguna eta ordua ezarriko ditu.

9.–Probak gainditu dituztenen zerrenda.

9.1. Azken ariketa kalifikatu ostean, epaimahaiak probak gainditu dituztenen zerrenda emanen du argitara webgunean, bakoitzaren puntuazioaren hurrenkeraren arabera egingina eta puntuaziorik altuena eskuratu duen izangaiarekin hasia. Horretarako, izangai bakoitzak ariketetan lortutako kalifikazioak batuko ditu.

10.–Lehiaketaldiaren garapena.

10.1. Epaimahaiak III. eranskinean ematen den baremoari jarraikiz baloratuko ditu merezimenduak. Probak gainditu dituztenen emaitzak argitaratu eta biharamunetik aitzina hasita, bost egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira lehiaketaldiari dagozkion agiriak. Proba guztiak gainditu dituzten izangaien merezimenduak baino ez dira baloratuko.

Jatorrizko agiriak edo behar bezala konpultsatuta aurkeztu beharko dira.

Gehienez ere 20 puntu emanen dira.

Epaimahaiak ezin izanen du, inola ere, aurkeztu gabeko edo agirien bidez egiaztatu gabeko merezimendurik kontuan hartu.

Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahal ditu izangaiek alegatutako merezimenduen gainean.

10.2. Izangaiek lehiaketaldian eskuratzen duten puntuazioa Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko webgunean argitaratuko da.

11.–Epai-mahaiaren proposamena eta agirien aurkezpena.

11.1. Oposizioaldia eta lehiaketaldia bukatutik, gainditu duten izangaien zerrenda argitaratuko du epaimahaiak Mankomunitateko webgunean, lortutako puntuazio-hurrenkeraren arabera, oposizioko ariketetan eta lehiaketaldian izangaiek lortutako kalifikazioak batuta.

11.2. Epaimahaiak Lehendakartzari igorriko dio puntuazio altuena lortu duen izangaiaren aldeko ordezkapen proposamena, mankomunitateko web orrian argitaratuko da.

11.3. Izangaiek guztira lortzen dituzten puntuetan berdinketarik gertatuko balitz, Epaimahaiak irizpide honen arabera ebatziko du: hautapen prozesuaren proba teoriko-praktikoan puntu gehien lortzen duenaren alde ebatziko da.

11.4. Aurreko atalean aurreikusitako kasuan, gainditu duten izangaien zerrendan, 11.1 oinarrian aipatzen den horretan, ondo-ondotik heldu den izangaiarekin beteko du lanpostua, eta harekin aurreko ataletan adierazi bezala jokatu da.

12.–Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, nahiz bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurtsu hauetakoren bat aurkez daiteke, aukeran:

a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko arlo bereko salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabaki hau edo errekurritzen den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita, organo egileari errekurritzeko asmoaren berri emanik; edo bestela,

b) Gora jotzeko errekurtsua, zuzenean Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu edo errekurritzen den egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita.

c) Berraztertzeko errekurtsua, egintza eman duen erakundean berean, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik aitzina.

Epaimahaiaren egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez daiteke, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko lehendakariari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

Leitzan, 2026ko urtarrilaren 14an. Lehendakaria, Aintzane Arraiza.



I. ERANSKINA

Eskabide eredua (PDFa).

II. ERANSKINA

Ariketa teorikoen gai zerrenda

1. gaia.—Soziolinguistikaren eta hizkuntza gutxituen inguruko oinarrizko kontzeptuak: hizkuntza-komunitatea, hizkuntza-eskubideak, aniztasuna, hizkuntza-ukipena, -normalizazioa, -politika eta -plangintza, ekologia linguistikoa, hizkuntza-jarrerak, -ideologia eta -nortasuna, minorizazioa, diglosia, sozializazioa, alternantzia linguistikoa, eleaniztasuna.

2. gaia.—Hizkuntza komunitate minorizatuak munduan: egoera, estatus juridikoa, ofizialtasuna.

3. gaia.—Hizkuntza gutxiagotuak nazioartean normalizatzeko erabiltzen diren hizkuntza politikaren ereduak. Lurraldetasunaren eta eskubide pertsonalaren kontzeptuak.
4. gaia.—Nazioarteko soziolinguistikaren ekarpen teorikoak: Fishman, Mackey, Cooper...
5. gaia.—Euskararen inguruko soziolinguistikaren ekarpen teorikoak eta ikerketak: Txepetx, Txillardeggi, Odriozola, Zalbide, Kasares...
6. gaia.— Euskararen egoera demolinguistikoa. Hizkuntza gaitasunari, jarrerari eta euskararen transmisioari buruzko datuak eta ikerlanak, eta euskararen erabilpenari buruzko datuak eta estatistikak.
7. gaia.—Euskararen legezko egoera Nafarroan: Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Espainiako 13/1982 Lege Organikoa; Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea eta hura garatzen duten foru dekretuak; toki-ordenantzak.
8. gaia.— Euskal hiztunen dentsitatea % 70etik gorakoa den Nafarroako herriak: ezaugarri demografikoak, bereizgarri soziolinguistikoak, funtzionalak eta hizkuntza normalizaziorako zerbitzu publikoak.
9. gaia.— Hizkuntza-errepertorioa: hizkuntzaren aldagaiak eta eremuak. Euskararen errepertorioa: batua, aldaera geografikoak, gazteen hizkuntza, hizkuntza administratiboa...
10. gaia.— Euskararen egoera normalizatzeko azpiegiturak. Entitate publikoak eta gizarte-entitateak; normalizazio-planak; hizkuntza-komunitatea indartzeko ekimenak eta programak.
11. gaia.— Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak. Kuantitatiboak. Kualitatiboak. Partizipatiboak.
12. gaia.— Zerbitzu elebidunaren trataera administrazioan: nahitaezotasuna eta meritua. Europako Erreferentzia Markoa. Baliokidetzak.
13. gaia.— Nafarroako toki-entitateetako euskara zerbitzuak. Nafarroako udaletako euskara teknikarien sarea (NUETS).
14. gaia.— Euskararen ikaskuntza Nafarroan: helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko baliabideak.
15. gaia.— Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea: ezaugarri demografikoak, geografikoak eta eskualdeen arteko harremanak. Antolakuntza administratiboa eta entitateen egiturak. 0-18 urte arteko hezkuntzako erreferentziazko zentroak. Elkarte eta bestelako erakunde publiko zein pribatuak: hezkuntza ez arautua, euskararen sustapena, tokiko hedabideak, kirola, kultura, aisialdia, arlo sozioekonomikoa... Tokiko kultura adierazpen nagusiak.

16. gaia.– Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea: hastapena, izaera, helburu orokorrak, irizpideak, UEMAko udalerrietako ezaugarri eta errealitate soziolinguistikoak eta sozioekonomikoak. Udalerri euskaldunetarako hizkuntza-irizpideak. Arnasguneek eta udalerri euskaldunek euskararen berreskurapenean duten garrantzia eta jokatu behar duten rola.

III. ERANSKINA

Lehiaketaldiak gehienez ere 20 puntuko balorazioa izanen du,

modu honetan banaturik

1.–Lan esperientzia: 10 puntu, gehienez ere. Derrigorrezkoa izanen da entitate kontratatzailearen agiria aurkeztea entitate horretan garatutako lanak zehaztuta. Horrekin batera, Gizarte Segurantzak ematen duen hautagaiaren lan-bizitzaren agiria aurkeztu beharko da. Deialdi honetan eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egun bera izanen da lan esperientzia aintzat hartzeko azkeneko eguna.

a. Toki entitate baten zerbitzuan euskara teknikariaren lanpostuan lan egiteagatik: 3 puntu/urtea, gehienez 9 puntu. Zatiki bakoitzeko, haren ehunekoa.

b. Beste administrazio publiko batean euskara teknikariaren lanpostuan lan egiteagatik: puntu 1 urteko, eta 3 puntu gehienez ere. Zatiki bakoitzeko, haren ehunekoa.

c. Elkarte edo erakunde pribatuetan euskara normalizatzeko dinamizatzaile, koordinatzaile edo teknikari gisa lan egiteagatik: puntu 1 urteko, eta 3 puntu gehienez ere. Zatiki bakoitzeko, haren ehunekoa.

2.–Hizkuntza planifikazioko graduatu ondokoa: 4 puntu.

3.–Lanpostuarekin zerikusia duten prestakuntza ikastaroak: 4 puntu, gehienez ere.

Atal honetan kontuan hartuko dira soziolinguistikari buruzko ikastaroak eta euskara maila hobetzeko ikastaroak (C1 baino maila handiagokoak). Hizkuntzalaritza arloko ikastaroak ez dira kontuan hartuko. Puntuak honelaxe banatuko dira:

a. 10etik 30 ordura bitarteko ikastaro bakoitzagatik: 0,25 puntu.

b. 31tik 50 ordura bitarteko ikastaro bakoitzagatik: 0,50 puntu.

c. 51tik 100 ordura bitarteko ikastaro bakoitzagatik: 0,75 puntu.

d. 101 ordu baino gehiagoko ikastaro bakoitzagatik: puntu 1.

4.–Soziolinguistikari buruzko argitalpen, komunikazio, mintzaldi, ikastaro eta ikerlanengatik (epaimahaiak baloratuko du nolako kalitatea duten): 2 puntu, gehienez ere.

a. Argitaratutako liburu bakoitza: puntu 1.

b. Argitaratutako artikulua bakoitza: 0,25 puntu.

c. Komunikazio, mintzaldi, ikastaro edo argitaratu gabeko ikerlan bakoitza: 0,15 puntu.

Lehiaketan aurkezten diren dokumentu guztiek jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izan beharko dute. Aurkeztutako merezimenduak behar bezala frogatuko dira: hasiera eta amaiera datak zehaztuko dira, baita lanaldi mota, hala behar duenean, eta atal horiei dagokien puntuazioa kalkulatzeko beharrezkoa den informazio guztia ere.